



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA FORU SOZETATE PUBLIKORAKO SAP SISTEMEN AHOHKULARI LANPOSTU BATERAKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DUTENAK (deialdiaren kodea: 2019003)

LEHENENGO OINARRIA. - LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

- SAP azpiegituretako berezko lanak, besteak beste: arkitekturaren definizioa, inplementazioa, konfigurazioa, mantentzea, monitorizazioa, optimizazioa, arazoaren eta irtenbidearen analisia eta sistemen dokumentazioa. SAP sistemen artean, nagusiki hauek aurreikusten dira: HANA Platform 2.0, ERP 6.0, S/4HANA, Solution Manager eta abar.
- Eremu funtzionaleko egitekoak edo proiektuetako partaide gisa dagozkion lanak, eta SAP azpiegituren atalean sortzen diren beharrezko erantzuteko zereginak, hala nola kopia homogeneousak, igorleko kopiak, sistemen aldaketak, garraioaren kudeaketa, aholkularitza eta abar.
- Eskakerei eta gorabeherak ebaztea, eta zalantzak eta arazo teknikoak konpontzen laguntzea, proiektu berrietan zein SAP sistemen mantentze lanetan.
- Aholkularitza teknikoaren ematea eta parte hartzea azpiegiturarako ezarritako jardueretan, SAP sistemekin loturiko proiektu guztietan eta zerikusia duten produktuetan.
- SAPekin integratzen diren eta Arabako Foru Aldundiaren azpiegituraren zati diren beste sistema batzuei loturiko administrazio lanak.

BIGARREN OINARRIA. - IZANGAIEI ESKATZEN ZAIZKIEN BERARIAZKO BALDINTZAK:

Dagokien hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte (kasu guztietan, baldintzak baztertzailak izango dira):

- A) Titulazioa:** Informatikari edo telekomunikazioei loturiko tituluak baino ez dira onartuko.

Baldintzak inoiz ere ez dira balioetsiko merezimendu moduan.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak bidali behar dituzte posta elektronikoz helbide honetara: 2019003ccasa@forselec.es.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

Hautaketa prozedura honela garatuko da:

1. FASEA: BERARIAZKO EZAGUTZAREN EBALUAZIOA (15 puntu, gehienez ere):

Idatzizko proba: Ariketa teorikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila, honako hauen gaineko ezagutzan oinarritua:

- SAP sistemen produktuak, teknologiak eta arkitektura.
- SAP Netweaver sistemen administrazioa (AS ABAP eta AS Java)
- Datu baseen administrazioa (SAP HANA eta SQL Server)
- Segurtasuna eta auditoretza SAPen
- Windows eta Linux zerbitzarien administrazioa

Gehienez, 15 puntu lortu ahal izango dira proba horretan.

Ariketaren xedea hauxe izango da: epaimahaiak ezarritako epearen barruan, galdetegi bati idatziz erantzutea (aukera anitzeko erantzunak).

Ariketa zuzentzerakoan, zuzen erantzundakoen kopuruari akatsen kopuruaren herena kenduko zaio ($E = Z - A/3$ ¹); hala, gehienez ere 30 puntu lortu ahal izango dira, hots, 15 puntuko balioespenaren baliokidea. Erantzun gabeko galderengatik ez da zigorrik egongo eta erantzun bikoitzak erantzun gabekotzat joko dira. Azken balioespena ehunenetan moztuko² da.

Egindako ariketen egilea nor den jakin baino lehen, proba gainditzeko beharrezkoa den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehaztu ahalko du epaimahaiak.

¹ E=Ariketaren emaitza, Z=Zuzen erantzundako galderak, A=Erantzun akastunak

² Mozteak esan nahi du dezimal jakin batetik aurrera dezimalak kentzea, biribildu gabe. AKGSaren kasuan, bigarren dezimalek aurrera. Esate baterako: 4,171 eta 4,179 hemen moztuko dira: 4,17.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALIOESPENA (10 puntu, gehienez ere):

1. fasea gaingitzen dutenak bakarrik igaroko dira fase honetara.

A.1) Lanpostuarekin bat datorren lanbide esperientzia (4,5 puntu, gehienez ere):

- Eskatutakoaren antzeko lanpostuetan izandako lanbide esperientzia balioetsiko da.
- Enpresa publiko batek edo administrazio publikoak kontratatuta SAP sistemen administratzaile lanpostuetan egiaztatutako esperientziagatik, **0,075 puntu** emango dira hilabete oso bakoitzeko.
- Enpresa edo erakunde pribatu batek kontratatuta SAP sistemen administratzaile lanpostuetan egiaztatutako esperientziagatik, **0,05 puntu** emango dira hilabete oso bakoitzeko.

A.2) Ziurtagiriak (4 puntu, gehienez ere):

- SAP ziurtagiri familia hauetako ziurtagiriak izatea balioetsiko da (bat, familia bakoitzeko):

ZIURTAGIRI FAMILIA	PUNTUAK
C_HANATEC_XX - SAP HANA	1,6
C_TADM5X_XX - System Administration	1
C_TADM7X_XX - OS/DB Migration	0,5
E_S4HCON_XX - SAP S/4HANA Conversion and SAP System Upgrade	0,5
C_FIORADM_XX - SAP Fiori System Administration	0,20
C_SM100_XXXX - SAP Solution Manager Mandatory and Managed System Configuration	0,20

- Azken 4 urteetan lortutako ziurtagiriak bakarrik balioetsiko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

A.3) Hizkuntzak (1,5 puntu, gehienez ere):

- Hizkuntza hauek bakarrik balioetsiko dira: Euskara eta ingelesa
- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko dira.
- Ez da hizkuntza eskakizunik egiaztatzeaz azterketarik egingo.
- Hizkuntza bakoitza honela balioetsiko da:
 - B1: 0,15 puntu.
 - B2: 0,25 puntu.
 - C1: 0,50 puntu.
 - C2: 0,75 puntu.
- Hizkuntza beraren titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, gorengo mailakoa bakarrik balioetsiko da.

3. FASEA: LANPOSTUAREKIKO EGOKITASUN PROBA:

- **Nahitaezkoa eta baztertzaila** izango da (**GAI – EZ GAI**).
- 1. eta 2. faseetako emaitza orokorra kontuan hartuta puntuaziorik onena lortu duten 5 izangaiei egingo zaie proba.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Forselecek txosten zehatza egingo du, 5 puntuazio onenak lortu dituzten azken izangaiei elkarriketa egin ostean.
- Gai diren izangaiek aurrez aurreko elkarriketa egin beharko dute AKGSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den epaimahai kalifikatzaileko kideen aurrean.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (10 puntu, gehienez ere):

- **Nahitaezkoa.**
- Elkarriketa pertsonala egingo zaie 1. eta 2. faseetako emaitza orokorra kontuan hartuta puntuaziorik onena lortu duten 5 izangaietatik 3. fasean gaitzat jo direnei.
- Elkarriketa epaimahaikideek egingo dute AKGSAn egoitza sozialean, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak.
- Banako elkarriketa amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

1. FASEA	2. FASEA				3. FASEA	4. FASEA	GUZTIR A
	Lanpostuareki n bat datorren esperientzia	SAP ziurtagiriak	Hizkuntzak	GUZTIRA			
15	4,5	4	1,5	10	E/A	10	35

BOSGARREN OINARRIA. - BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK:

1. 4. fasean lortutako puntuazioa
2. 1. fasean lortutako puntuazioa
3. 2. fasean lortutako puntuazioa
4. Zozketa